



## **ARDIXARRA ETXEA, ERDI AROKO INTERPRETAZIO ZENTROA. ESKAINTZA PEDAGOGIKOA**

Segurako hiribildua, multzo monumental historiko-artistiko izendaturik dago. Bisita gidatuetan, XIII. mendetik XVIII. mende bitarteko garaietara joaten gara, garai hartako etxe, jauregi, eliza, sarrera ate eta herriko kaleak bisitatuz. Hauxe da bisitatzen duguna:

-ARDIXARRA ETXEA: XVI. mendeko etxebizitza-tailerra da. Bertan, turismo bulegoa eta erakusketa areto bat kokatzeaz gain, Erdi Aroko Interpretazio Zentrua daukagu. Jatorrizko egurrezko eraikuntza hartaz gozatzeko aukera dago bertan eta horrez gain, ikus-entzunezko labur baten eta maketa baten laguntzaz, Seguraren historia eta nondik norakoak azaltzen dira bertan.

-JAUREGIAK: XVI eta XVII. mendeko hainbat jauregi ikusten dira herrian zehar. Aurrealdeko armarri dotoreek etxe hoietan bizi izan ziren jaun eta nobleen oihartzunak dakarzkigute.

-KARKABA: bi etxeren artean dagoen kale edo pasadizo estua da. Bisita gidatuetan bakarrik irekitzen da kale hau.

-SARRERA ATEAK: Harresiko silarri harrizko hiru sarrera ate egoera onean daude oraindik.

-ELIZA: XVI. mendeko euskal gotikoa. Gipuzkoako laugarren haundiena. Monumentu historiko artistikoa izendatuta dago bertako barroko estilodun erretaularekin batera.

### **2023ko TARIFAK (10 ikasle edo gehiago eta aurrez erreserbatua):**

- Ardixarra Etxea, Erdi Aroko Interpretazio Zentroa 1,50€ 30 minutu
- Gune historikoa (Ardixarra, herria eta karkaba) 4€ 90 minutu
- Gune historikoa (Ardixarra, herria eta karkaba) + eliza 5€ 120 minutu
- Ardixarra etxea eta Segura ezagutzen, jokoak. 4€ 90/120 min (10 urtetik gora)
- Ardixarra etxea eta Segurako Oka-Quiz. 4€ 90/120 min (8 urtetik- 13 urtetara)